

"SANTURTZIKO GAZTE SOLIDARIOAK" PROGRAMA

SARRERA

Herritarrek etxebizitza eskuratzeko erronka bihurtu da administrazio publiko guztientzat, herritarren beharrei erantzuteko konpromisoa dutelako.

Testuinguru horretan, **Santurtziko Udalak** beti erakutsi du babesa etxebizitza babestuak sustatzeko politika garatzeari dagokionez, behar duten pertsonen, ahal dela alokairuan, baldintza duinetan etxebizitza bat errazteko. Hala, etxebizitza-parke publiko zabala du.

Santurtziko Udalaren etxebizitza babestuak gizarte edo ekonomia egoeragatik merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboek zuzenduta daude. Eta kolektibo horren barruan, Santurtziko Udalak arreta berezia eskaintzen die lehenengo etxebizitzaren bila dabiltzan gazteei. Kontuan hartu behar da, talde horren barruan, unibertsitateko ikasleek zailtasun bereziei egin behar izaten dietela aurre, etxebizitza eskuratzeko arazo orokorrez gain; izan ere, eskasia eta prekariedade ekonomikoaz gain, aldi baterako bizitoki ekonomikoa ere behar izaten dute, beren baliabideetara egokituta, denboraldi batez prestakuntza osatzeko, baldintzarik onenetan.

Illo horretan, **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU)** Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak, eta, oro har, UPV/EHU osoak bere oinarritzko helburu gisa ditu ikaslearen ikaskuntza/irakaskuntza (komunitate erantzukizunerako eta gizarte solidaritaterako unibertsitatearen funtzioen barruan) eta ikasleen bizitzarako baldintza material duinak lortzea.

HELBURUAK

“Santurtziko Gazte solidarioak” programaren helburua da Santurtziko Udalaren eta UPV-EHUren arteko lankidetza-esperientzia sortzea, unibertsitateko ikasleek etxebizitza babestua eskuratzeko baldintza materialak sortzeko, baldin eta horrek, aldi berean, ekarpen bat egiten badie erkidegoei eta auzoei, hala nola Mendialde auzoan integratutakoei, bertan baitaude hitzarmen honetara bideratu beharreko udal-etxebizitzak, eta bertan gauzatu nahi baita esku-hartze eta lankidetza komunitarioko programa hau.

Programa horrek gazteei etxebizitza duina eskuratzeko lagunduko die, eta, aldi berean, gazteek komunitatearekin duten konpromisoa bermatuko du, Santurtziko Mendialde auzoko bizitza hobetzeko proiektu eta ekintza solidarioetan parte har dezaten.

Udalaren etxebizitza-programa horren abantaila-baldintzez gozatzeko eskatzen den ordaina da auzoko esku-hartze sozio-komunitarioko udal-planekin lankidetzan aritzeko konpromiso irmoa hartzea, batez ere auzoko bizikidetzaren hobetzeraren eta gizarte-sarearen dinamizatzera bideratuta.

Programak honako helburu komun hauek ditu: bertako herritarren gizarte integrazioa eta kohesio handiagoa lortzea, etxebizitzan eta espazio komunean mantentze eta bizikidetzaren kultura sustatzea, eta herritarren egitura sozioekonomikoa zehaztea. Programa honako xede hauek zehazten dute:

- I. Ikasturteak iraun artean, UPV/EHUko ikasle unibertsitarioei udal etxebizitza merke baterako aukera ematea. Etxebizitza beste ikasle batzuekin partekatu beharko dute.
- II. Unibertsitarioen integrazioa eta partaidetzaren bidez, auzoko bizitzan kultura herritarra sustatzea, eta, horretarako, balioak eta herritarren bizikidetzarako ohitura normalizatuak partekatzea; nola ohitura sozialak, hala ekojasangarriak.
- III. Mendialde auzoa suspertzen laguntzea.

- iv. Auzoak leheneratzeko udal estrategiekin lankidetzan, esku hartze eta normalizazio soziokomunitarioaren eta herritarren partaidetzaren alorrean, esperientzia profesional bat edukitzea.
- v. Santurtziko Udalaren eta EHUren artean etorkizunean lankidetzan aritzeko aukera berriak aztertzea.

PROGRAMA

- Graduako edo graduondoko ikastaroetako UPV-EHUko ikasleak (masterra edo doktoregoa).
- Alokairuko etxebizitza baten bila dabiltzanak, UPV/EHUko graduako edo graduondoko beste ikasle batzuekin partekatzeke.
- Proiektuak xede dituen komunitate proiektuetan eta auzoetako kolektibo ahulen babesean kolaboratzeko prest daudenak.

Egoitza ekonomikoa eskuratzeko plaza bat nahi duten guztientzako oinarrizko baldintza da esku hartze soziokomunitariorako udal plan eta jardueretan kolaboratzeko konpromiso irmoa hartzea; batik bat, auzoko gizarte-sarea dinamizatzea eta bizikidetzaren hobetzea bideratuta daude, baita komunitateko kideen artean balio zibikoak indartzera ere.

Santurtziko Mendialde auzoan egingo den "Santurtziko Gazte Solidarioak" programako lankidetzaren aitzakia, ikasleei partaidetza-ziurtagiri bat emango zaie, betiere UPV/EHUren eta Santurtziko Udalaren arteko Jarraipen Batzordearen arabera ezarritako helburuak behar bezala betetzen badituzte (aurrerago aipatuko dira horien ezaugarriak).

ESKU-HARTZE EREMUAK

Mendialde auzoa aukeratu da "Gazte solidarioak" programa gauzatzeko, eremu horretan dagoelako udal-titulartasuneko etxebizitza kopuru handia. Biztanle bakoitzeko errenta txikia eta gizarte-prestazioak jasotzen dituzten pertsonen ehuneko handia dituen auzoa da.

Auzoak kultura-aniztasun handia du, eta bizilagunen bizikidetzarako erronkak planteatzen ditu

2015. urteaz geroztik, Santurtziko Udalak hainbat estrategia garatu ditu auzoko kulturen arteko bizikidetzak sustatzeko, eta hainbat gizarte-laguntzako eta -bitartekaritzako plan garatu ditu udal-etxebizitzetako maizterrekin, alokairua ordaintzeko betebeharrak eta auzo- eta komunitate-bizikidetzako arauak bete ditzaten sustatzeko. Hori positiboa izan da udalerriko eremu horretan.

Ekintza-ildo horiei jarraituz, Santurtziko Udalak ikasleentzat abian jarri duen programa berri honen bidez, Mendialde auzoa hobetzeko ekintza eta aukera horiek osatzen eta indartzen jarraitu nahi da. Zehazki, programan parte hartzen dutenentzat proposatutako gizarte-lana **astean 4 ordukoa** izango litzateke, eskola-ordutegitik kanpo, honako hauetan parte hartzeko:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta/edo Mendialde auzoan jarduera komunitarioak egiten dituzten eragile eta/edo gizarte-erakunde laguntzaileekin elkarlanean jarduerak antolatzea eta dinamizatzea, proiektu komunitarioetan eta auzoko kolektibo kalteberei laguntzen.

HAUTATUTAKO ETXEBIZITZAK

Programan 6 plaza eskaintzen dira. Programa horretan sartzen diren etxebizitzek ezaugarri hauek dituzte:

- Partekatuak, banakako logelan.
- Sukaldeaz eta oinarrizko altzariez hornituta.
- Hilean 55 €-ko alokairua (argi- eta ur-gastuak, barne hartu gabe)
- Mendialde auzoan daude.
- Kabiezko metro geltokia 3 minutura
- Leioako Kanpusera joateko Bizkaibuseko 2315 linea Kabiezko metro geltokiaren ondotik ateratzen da.

Programaren iraupena eta errentamendu-baldintzak

Programak ikasturte baten iraupena izango du, eta 2026ko uztailaren 15a baino lehen amaitu beharko da.

HAUTAKETA PROZESUA

Hautagaiek bete beharreko baldintzak

- UPV/EHUko graduako edo graduondoko (master edo doktoregoko) ikastaro batean matrikulatuta edo aurrez izena emanda dagoen edonork egin dezake eskabidea.
- Graduako ikasleentzat, 60 kreditu gaitututa izatea. Salbuespenezko kasuetan, batzordeak plaza bat esleitzea baloratuko du, nahiz eta onartutako kreditu-kopuruaren baldintza ez bete.
- Kontratua sinatzen den unean UPV/EHUn 2025/26 ikasturterako matrikulatuta egotea.
- 35 urte baino gutxiago izatea

Honako hauek baloratuko dira

- Interes pertsonala eta libre egotea.
- Egoera sozioekonomikoa
- GKE, elkarte edo antzekoetan borondatezko lanak edo lan ordainduak egin izana.
- Ikasleak egiten duen gradu edo graduondokoak eskatutako lan soziokomunitarioen egokitzapenari eman diezaiokeen balio erantsia

Eskaerak aurkezteko lekua

Programan parte hartzeko eskabideak, ahal dela, modu telematikoan aurkeztuko dira Bizkaiko Campusaren webgunean dagoen eskabidearen bidez (<https://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/campusaren-deialdiak>).

Halaber, eta salbuespen moduan, eskaerak paperean aurkeztu ahalko dira erregistro bulego hauetako batean:

- Errektoregoaren Eraikina. Sarriena auzoa, z.g. 48940 Leioa.
- Informazio eta Erregistro Bulegoa, Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83 (Sarriko) 48015 Bilbo.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten duten interesatuek 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikulua zehazten duen moduan egin beharko dute

Eskariak aurkezteko epea

Eskariak aurkeztu ahal izango dira 2025eko ekainaren 23tik uztailaren 15era bitartean Behin-behineko ebazpena uztailaren azken astean argitaratuko da eta emandako

plazak behin betiko bilakatuko dira irailaren hasieran, kontratua sinatzen denean, graduiko ikasleen kasuan, eta hilabete honen amaieran, graduondoko ikasleen kasuan. Gogoan izan, kontratuaren sinatzeko, matrikula formalizatuta egon behar dela.

Eskaerak aurkezteko aplikazioa irekita egongo da abenduak 15raino eta lehen deialdian aurkeztutako eskaerekin egon daitezkeen hutsuneak ez badira betetzen, uztaileak 15 ostean jasotako eskaerekin beteko dira.

Hautaketa eta jarraipen batzordea

Programan parte hartuko duten pertsonen aukeraketa UPV/EHUren eta Santurtziko Udalaren arteko batzorde misto batek egingo du, honako huez osatutakoa: UPV/EHUko 2 ordezkari eta Santurtziko Udaleko 2 ordezkari

Horrez gain, programan zehaztutako partaideen eskubide eta betebeharren betetzea bermatzea izango da batzorde horren eginkizuna, eta, hala badagokio, UPV/EHUri eta Santurtziko Udalari programa modu egokian garatzeko aldaketak proposatzea.

Programako hautaketa eta jarraipen batzordeak elkarriketa pertsonalizatua egin ahal izango du, berori nahitaezkoa izanik.

*Eskaerak paperean aurkezten badira dokumentu hauek erantsi behar dira:

- Eskaera sinatuta (inprimaki hau <https://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/ostatua/ostatu-solidarioa/gazte-solidarioak-santurtzi> webgunean eskura daiteke)
- NAN edo pasaporte
- Curriculum.
- Erroldatze ziurtagiria
- Galdetegia (inprimaki hau <https://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/ostatua/ostatu-solidarioa/gazte-solidarioak-santurtzi> webgunean eskura daiteke)
- Lan-bizitzaren agiria
- Egiatagiri-ekonomikoa (bat hauen artean):
 - Banku-kontu guztien saldo eguneratuak
 - Azken urteko errenta aitortpenaren (PFEZ) fotokopia
 - Nomina bidez jasotako diru sarreraren fotokopia
 - Ogasun Sailaren ziurtagiri negatiboa
 - Aurrekoetako baten bat aurkezterik ez badago, diru sarreraren zinpeko deklarazioa
 - Beka eman izanaren eta diru zenbatekoaren fotokopia, bekarik izan bada
 - Guraso(ar)en PFEZen fotokopia, eskatzailea horren/horien mende dagoenean.
- Egiten ari den graduondoko programa.